



# Etxeko txikienen danbor hotsak

**TOLOSA** ▶ Danborrari gaztetxoek hartu zituzten atzo kaleak, Aiz-Orratz elkarteak antolatutako 30. Haur Danborradan

**HELDUAK** ▶ Kultur Etxeko balkoitik zaindu zituen danborjoleak Galtzaundik; gauean helduen danborrada ere jarraitu zuen ▶ 4-5



Ehunka ume eta gazteok hartu zuen parte, atzo, Inauterietako Haur Danborradan. Heldu asko eta asko zituzten begira kale ertzetatik. J. ASTIBIA

### TOLOSA ▶

## Berazubi eta Itun Txulo elkarteak ere Inauterietan

Zillarrezko ezteiak bete dituzte biek ▶ 3



Espainiako txurrogilea. N. URBIZU

### TOLOSA ▶

## Arpegi taldearen zirko eroan barrez

Erruz bete zuten Beotibar ▶ 6

### KIKE AMONARRIZ ▶ INAUTERIZALEA

## «Inauteriak? Zoramen kolektibo zoragarria»

Txikitatik gozatu izan du festa hauetaz ▶ 2

### BIHAR KALEAN IZANGO DA HITZA

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA ez ohi da argitaratzen astelehenetan. Bihar, ordea, kalean izango da. Izan ere, Tolosako Inauteriak direnez, jai hauei buruzko informazio zabala emateko lan egingo du gaur eskualdeko euskarazko egunkariaren erre-dakzio taldeak.



## 'Jeiki jeiki oi ortatik gaur tolosarrak Inauteriak beti!...'

**ATZERA BEGIRA** ▶ *Jeiki guztiok goiz kantaren soñua eta ez galdu ondoren datorrena...* Doinu horien erritmora esnatu dira gaur tolosarrak, eta pijama eta txapinak kendu gabe atera dira kalera, dianarekin salto eta brinko Alde Zaharreko kaleetan

barrena ibiltzera. Inauterietako egun handiei ongietorria egin diete horrela, goizean goizetik, urtero legez. Jende asko elkartzen du urtero aspaldiko ohitura honek. Argazkian, 1970. urteko dianan, zenbait tolosar saltoka eta kantari. HITZA

**KIKE AMONARRIZ** ▶ INAUTERIZALEA

## «Zoramen kolektibo zoragarri bat dira Inauteriak»

**Iñigo Terradillos.** Tolosarra jaiotzez, umorearekin lotura berezia izan du betidanik Kike Amonarrizek. Bi osagai horiekin, ez da harritzekoa festa kuttun hauek barne-barnean eramatea, hau da, inauterizale amorratua izatea. Bakarka —argazkian, haren lehen dabilziko mozorroa— nahiz taldeka mozorrotuta, koadrilakoekin edota familiakoekin, txikitatik gozatu izan du Amonarrizek Inauterietaz.

**Inauteriak: zer esan nahi dute zuretzat?**

Zoramen kolektibo zoragarri bat dira.

**Nola ezagutu zenituen Inauteriak?**

Seaskan nengoela, txaranga batek esnatu ninduen lozorrotik.

**Gogoan duzun gertaera bereziren bat.**

14 urte nituela, Inauterietan eskiatzera joan nintzen. Orduetik, ez dut gehiago eskiatu egun horietan.

**Karrozen-konpartsen ingurua...**

Ahalik eta gehien eta ahalik eta onenak atera daitezela.

**Tolosarrak inauterizale behar al du izatez?**

Bizitza honetan ez da ezer izan behar. Norberak aukeratu dezala. Baina tolosarrok inauterizale izan gaitezke, eta aukera hori izatea zorte handia da.

**Nola definituko zenizkioke Inauteriak kanpotik datorren bati?**

Inauteriak ez dira definitu behar, gozatu egin behar dira. Etorri, gozatu eta erotu zaitez gurekin batera.

**Mozorrorik onena? Eta lehenengoa?**

Bakarka atera nintzen lehenengoa hondartzetako patata frijitu eta Fanta eta Coca-Cola saltzailearena izan zen. Onena? Hurrengoa izan ohi da beti!

**Zer gustatzen zaizu gehien jai hauetatik?**

Gertatuak gertatuta ere, adin eta kolore guztietako jendeak parte hartzen jarraitzen duela ikustea da gehien gogoko du-dana.



HITZA

### TRAGO BATEAN ▶

**Egunik onena?** Inauteriak pasatutakoan esango dizut hori.

**Mozorro bat?** «Baina zuek zertaz zoazte jantzita?».

**Gaua ala eguna?** Eguna. **Festa bat.** San Fermin.

**Hausterre Egunean.** Sekulako ajea.

**Nola asetzen duzu sabela?** Ondo gosalduz, ondo bazkalduz eta ondo afalduz. Intendentzia ezinbestekoa da festetan.

### EGITARAUA ▶ GAUR

#### TOLOSA

#### ZALDUNITA

**08:00.** Diana, Tolosako

Musika Bandarekin.

**08:45.** Herriko txistulari Bandak ohiturazko ibilbidea egingo du, *Inauterietako Zortzikoa* joz.

**10:00.** Txarangen irteera.

**10:30.** Plaza Berrian sokamuturra.



Sokamuturra, ia. J. JOXEMI SAIZAR

**11:30.** Karroza eta konpartsen irteera.

**15:45.** Herriko txistulari bandak *Idiarena* pieza joz ohiko ibilbidea egingen du.

**16:00.** Alcoyano, Aiz-Orratz eta Sukalde txarangekin, kalejira Plaza Zaharretik zezen-plazaraino.

**16:30.** Zezenak zezen-plazan, txarangek eta txistulariek alaituta.

Ondoren, kalejira.

**18:00.** Txosnagunean, Bonberenea txaranga, konpartsak...

**19:00.** Dantzaldia Plaza Berrian, Alcoyano, Aiz-Orratz eta Sukalde txarangekin.

**19:00.** Edari dastaketa, txosnagunean.

**23:30.** Oria eta Incansables txaranga irtengo dira.

**23:30.** Plaza Berrian, La lengua de traporen kontzertua.

#### ABALTZISKETA

**09:00.** Txantxoak baserrietara joango dira.

**11:00.** Plazan, Txantxo dantza.

**12:30.** Larraitzen, Txantxo dantza.

#### AMEZKETA

**08:00.** Talai-dantzarien bi talde Ugarte aldeko baserrietan eta herri gunean ariko dira dantzan.



ELKARTEAK ▶

# Auzoak-Inauteriak ezkontza

Zilarrezko ezteiak bete dituzte Berazubi eta Amaroazko Itun Txulo elkarteek; bi auzo hauek Inauterietan duten partaidetzan zerikusia badute

JOXEMI SAIZAR

**N**ork ez ditu Berazubikoak eta Amaroazkoak ikusi Inauterietan? Karroza eta konpartsetan parte hartzen urte askotan nabarmendu egin dira. Zer esanik ez Zaldunita Bezperako danborrada nagusian. Eta bi auzoetako txarangek ere bere presentzia izan dute urte luzetan —aurten Amaroazkoa ez da aterako—. Bi auzo hauen inauterizaletasunean zeregina duten Berazubi eta Itun Txulo elkarteek aurten 25 urte bete dituzte.

Ez zuten aitzindari makala izan Berazubiko inauterizaleek: Jose Manuel Gorostiaga, futbol zelaiko kontserje ezaguna, izan zuten maisua. Harekin hasi ziren auzoko gazteak karroza eta konpartsetan parte hartzen. Katea ez da eten: gaur egun bere senitartekoez jarrizten dute karroza ateratzen hutsik egin gabe, eta auzoko beste talde handi batek ere ateratzen du karroza. Umorea eta orijinaltasuna ez zaie falta bi talde hauei. Inauterizaletasunaren listoa goi-goian uzten dute Berazubikoek.

Musikaren alorrean ere ez dira atzean gelditzen. 23 txaranga izango dira aurten ere Inauteriak alaitzen. Erraz esaten da, baina lan handia suposatzen du horrek: musikariak bilatzea, haiek zaintzea eta mimatzea, ordaintzea, laguntzea... 23 urte ditu Berazubi elkartearen txarangek eta aurten elkartearen urtemuga Astelenitan zezen-plazan txaranga ofizialen parean izanda nabarmendu nahi dute. Eta beren pieza, Jose Tarragonak egina, beste txarangei entzun nahi liekete.

Eta danborradaz zer esan? Hamar urte bete zituela laz. Hasi eran danborrada ofizialek aparte hasi ziren, baina azken urteotan besteekin batera ateratzen dira beren jantzi dotorea eta umorea erakutsiz. Hor ere izaten dute lana.

Aipatutako ekitaldi hauetan 1981eko abenduaren 17an 27 gazte sortu zuten elkarteak zeregin handia izan du. Jaiak antolatzeke Sakramentinoetan elkartzen ziren haietako bakoitzak garai haietako 100.000 pezeta jarri, Electro-hogar dendako lokala erosi eta horrelako eta bestelako gauza asko egin hasi ziren. Inauterietan lotuta batzuk —karroza eta kon-



Berazubiko karroza duela bi urte. Aurten ere ez dira guardia zibilak eta Espainiako banderak faltako. L. M.



Amaroazko txaranga aurten ez da aterako musikariak izan arren, laguntzaile falta dituztelako. JOXEMI SAIZAR

partsak, txaranga, danborrada, Carnaval txikiko zekorrek, kirolekin —elkarteen arteko sokatira txapelketak, arrauna, Marraskilo zikloturista taldea—, gastronomiarekin —babarrun lehiaketan parte hartu, afariak, birak—... 25. urtemuga ospatzeko ere beste batzuk badituzte buruan.

## Auzoko jaietan lagundu

Amaroazko bizilagunek ere ordezkari zabala izan dute

beti Inauterietan. Konpartsa eta karroza ugari atera dira bertatik. Aurten ere ez da faltako. Txarangek aurten huts egin du, urte luzetan jaiak alaitzen aritu ondoren. Musikariak bai, baina laguntzaileak biltzeko arazoa izan dute nonbait. Danborrada nagusian ere amaroaztar ugari izaten dira urtero.

Bi elkarte daude bertan San Blas eta Itun Txulo, eta azken honek ere zilarrezko ezteiak ditu aurten. Auzoko 35 gazte elkartu ziren 1981ean eta auzoa

eraiki zuen enpresak erabiltzen zuen lokala erosi zuten. Inauterietan ez dute lotura berezirik, baina bere bazkide batzuk ateratzen dira karroza eta konpartsetan. Haur danborradan kantinera ateratzen dute. Luis Angel Tarragonak egindako pieza ere badute. Auzoko jaietan laguntzen dute bazkideek eta elkarte baten ohiko aktibitateak izaten dituzte. Nahiz eta ekintza askorik ez izan, urtemugan zerbait berezia egiten saiatuko dira aurten.

BERAZUBI ▶



**Sorrera.** 1981eko abenduak 17.

**Lehenbiziko lehendakaria.** Jesus Alonso.

**Egoitza.** Martin J. Iraola 1, atzea.

**Inauterietako jarduerak.**

Txaranga Astelenitan ateratzea; kantinera Haur Danborradan; garai batean Carnaval txikiko zekorreketan parte hartu; bazkide batzuk auzoko karroza eta konpartsetan eta danborradan ateratzea...

**Beste jarduerak.** Auzoko jaietan lagundu; elkarteen arteko sokatira txapelketa hainbat urtetan sariak lortuz; arrauna; Marraskilo zikloturista taldea; Babarrun Lehiaketa gastronomikoan parte hartu irabazte lortuz; afariak; birak...

**Bazkide kopurua.** 36.

**Gaur egungo lehendakaria.** Bost laguneko batzordea.

ITUN TXULO ▶



**Sorrera.** 1981eko urria.

**Lehenbiziko lehendakaria.** Jose Luis Arzallus.

**Egoitza.** Amaroazko, 7.

**Inauterietako jarduerak.**

Kantinera Haur Danborradan; bazkide batzuk auzoko karroza eta konpartsetan eta herriko danborradan ateratzea.

**Beste jarduerak.** Auzoko jaietan lagundu; Zuhaitz Egunean lagundu; afariak; birak...

**Bazkide kopurua.** 35.

**Gaur egungo lehendakaria.** Vitoriano Anova.

"Xirimiri" **Gora inauteriak!**  
Txokolategia  
Errementari kalea, 40  
20400 Tolosa  
Telef. 943 67 52 23

**Tolosaldea** BUS S.L. **Ondo pasa inauteriak!**  
Ibilaldiak • Ezteiak Agurafariak • Kastetxeak Kirol taldeak  
Tel eta faxa: 943 650621 • mug.: 619 723 819 • Donostia Etoib,9 • TOLOSA



HAUR DANBORRADA ▶

# Txikien danborrak, pran-pran!

Herriko kale nagusiak danborerroz ez ezik ikuslezk mukurru beteta direla, errementari, soinu-jotzaile, kosako eta bestek Haur Danborrada egin dute, aurten 30.a, banderadunak aurrean dituztela

JAIONE ASTIBIA

Herriko kalerik nagusienetan danbor hotsa izan da nagusi azken orduetan: zortzi elkartetako ehunka neskato-mutikok Haur Danborrada egin dute, Inauteri doinuekin *pranbatako* erritmiko eta ikasitakoak joz.

Aurtengoarekin 30. aldiz antolatatu du Haur Danborrada Aiz-Orratz elkartek, eta osasuntsuago dagoela esan liteke atzo arratsaldeko kaleko giroa ikusita: Tolosako hiru ikaste-txeetako gazte txok, talde batean edo bestean parte hartuz, ikuskizun dotorea eskaini zuten, eta danborren oihartzuna herriko etxe tarte eta txoko guztietara hedatuarazi zuten.

Mikeleteak eta herriko abanderatua bere laguntzaileekin aurretik zituztela, errementariak, marinelak eta txantxoak makilekin danborrak sutsu astinduz aritu ziren, Tolosako Inauterietako eta Donostiako danborradako ohiko doinuek erritmora; txukun asko egin ere, aurreko asteotan egindako prestaketak balioetsuak izan dira frogatuz, haiek ikustera joandako guztien gozamenerako.

Danborjotzaileen atzetik, neskak kosakoek ere beren dantzarako grina erakutsi zu-



Trianguloa. Ibilian egindakoa, hor kontzertu modura eskaini zuten guztiak batera, danborra indartsu eta gogotsu joz. JAIONE ASTIBIA

ten, txandan txandan, Larrañagaren akordeoi-jotzaileen soinua tartekatuz.

Trianguloan, aitatutako zortzi elkartetako banderadunek Kultur Etxeko balkoitik agurra

egin zuten. Galtzaundik ere erdi ezkututik zaintzen zituen bitartean.

Aiz-Orratz elkartean bukatu zuten danborrada, gauerako helduei txanda emanaz.



Gurdia. Txantxo Lehiaketako irabazleak, serpentinak eta konfietak botaz, gustora aski ibili ziren gurdia gainean. J. ASTIBIA

ZERBITZU BULEGOA

AIXA

Nominak - Kontabilitateak  
Zergak - Autonomoak

Pablo Gorosabel, 4 - 1. esk  
TOLOSA  
Tel.: 943 65 03 03  
Faxa: 943 65 22 22  
mjhuarte@euskalnet.net

Sam

Kartazalak  
Poltsak

Usabal auzoa, 126 • 20400 TOLOSA  
Tel.: 943 67 40 00 • Faxa. 943 67 55 44 • sam@sam-sobres.com

SEGUROS  
BILBAO

Zumardi

aholkularitza integrala

San Joan festa zoriontsuak  
opa dizkizu

Laskurain, 8 behe • TOLOSA  
Tel.: 943 65 18 78 • Tel./Faxa: 943 65 18 77

CITROËN, GELDIEZINA



Munduko Rally txapelketa 2003, 2004, 2005.  
Dani Sordo, Junior mailako munduko Rally txapelketa Citroën C2 Super 1,600ekin.  
Salmento errekorra: 218.000 ibilgailunik gara salduak.  
Lehenak ibilgailu komertzialen salmentan.

## Horregatik, hilabete honetan, eskaintza geldiezinak:



CITROËN C1  
8.080 €-tik



CITROËN C2  
8.520 €-tik



CITROËN C3  
9.030 €-tik



CITROËN C4  
11.830 €-tik



CITROËN PICASSO  
13.000 €-tik



CITROËN C5  
17.320 €-tik

NORGEHIAGOKAKO TEKNOLOGIA EGUNEROKORAKO  
Aurkitu operazio bereziak [www.citroen.es](http://www.citroen.es) web orrialdean. Citroën argibideak: 902 44 55 66

Konsumo mitoa (l/100km): CO<sub>2</sub> (g/km) emisioa: C1: 4.1 - 4.6/109 C2: 4.2 - 6.9/111-163 C3: 4.3 - 7.0/113-165 C4: 4.7 - 8.4/125-200 Xsara Picasso: 5.1 - 8.6/135-205 C5: 5.4 - 10.0/142-238 \*PVP gogoratuak | 8 E 2, matrikulazio zerga, gogorazio, promozio eskaintza eta plan preber barne). \*\*PVP (bi dagokien orreko, baki gogoratuak). | 8 E 2 eta matrikulazio zerga barne). Hilabete bakoera gure balioak, gogorazio, gogorazio, gogorazio eta Bolador Piletan bezain partikularren, operazioan parte hartzen duten salmentan. Argizkiak erakusten dituzten modelok: C1 Sp SX, C2 VTS, C3 VTR, C4 Coupé VTS, Xsara Picasso Exclusive, C5 Premier. (1) Matrikulazio datuak DGT 2005.



**Akordeoi-jotzaileak.** Isidro Larrañaga maisuaren esanera, zuzeneko musika eskaini zuen soinu-jotzaile gazte koadrila honek, ibilbide osoan zehar megafoniatik jotzen zituzten danborradako piezen tartean. Inauterietako agerraldi hau egiten duten lanaren erakusleho egokia da. J. ASTIBIA



**Marinelak.** Itsasertzetik lehortera etorriak, mahonezko arropekin, hauek ere herriko Haur Danborradan parte hartu nahi izan zuten, joz eta kantatuz ere bai. J. ASTIBIA



**Errementariak.** Tenazak eta mailuaren *tin-tin* hotsak utzi eta makilak eta danborra hartu zituzten erramientatzat atzo sutegetako langile hauek. Egia zor, ederki asko jotzen zuten gainera! J. ASTIBIA



**Kosakak.** Eta ekialdetik etorritako lagun hauek ere, beren herrialdeko jantziekin eta musika-tresnekin, hango dantza eskaini zuten. Atzera eta aurrera, panderoak astinduz ibili ziren. J. ASTIBIA



**Txantxoak.** Danbor-soinua ez ezik kolorea ere nagusitu zen kalean: mila koloretako txilabak soinean jantzi eta Inauterietarako prest agertu zen txantxo koadrila. J. ASTIBIA

**Galai**  
LEAFAINDIRIA  
inauteriak ondo pasa!  
Korreo, 11 (galeriak)-TOLOSA-Tel.: 943 67 29 05

**IGARRI**  
AHOLKULARITZA  
igarr@igarr.com  
San Frantzisko kalea, 13 - 2A  
20400 TOLOSA (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 65 42 50  
Faxa: 943 65 04 60  
Portuetxe ibilbidea 23  
3. solairua 7. atea (CEMEI eraikina)  
20018 DONOSTIA (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 316 126  
Faxa: 943 316 127

Panasonic Pioneer THOMSON  
BOSCH FAGOR Sacco  
Punta puntako markak  
Harrera pertsonalizatua  
Erosketa zentzudunena  
**beotibar**  
Etxetresna elektrikoetan  
Gudari, 7 • Tolosa • Tel./faxa: 943 65 46 50

**KLISK**  
Argazkilaria  
Argazki eta  
zerbitzu digitalak  
azken berrikuntzak  
Bideotik DVDra  
San Frantzisko, 6  
TOLOSA  
☎ 943 11 85 45 • 943 65 22 99

**LAB** Langile Abertzaleen Batzordeak  
Euskal Herrian  
bizi eta lan  
bertan erabaki  
Gorosabel 29,1. • Tel.: 943 67 00 26 • 20.400 TOLOSA

**PAULINO SORARRAIN S.L.**  
1.918 tik aurrera  
• Fundiziorako modelook egurrean, poliestirenoan eta resinan  
• Dentsitate handiko polietilenoen mekanizatua  
• Enbalaketa  
Donostia Etorb. 6 • TOLOSA  
Tel.: 943 65 25 58 • Faxa: 943 69 73 49  
E-maila: PAULINO\_SOR@terra.es



ARPEGI TALDEAREN JAIALDIA ▶

# Arpegi taldearen zirko bitxia

## Esandako ordurako jendea elkartu zen Beotibarren, haien kontu barre egiteko

NEREA URBIZU

22:45ean, Arpegi taldeak esan eta eskatu bezala, jendea puntual-puntual zen Beotibarren Ostiral Meheko jaialdia ikusteko irrikitan. Ordua errespetatuz hasi ziren Arpegikoak ere jende andanaren barreak eragiten. Lehengo urtean *Boda leal* delakoa egin bazuten, aurten *Zirkoko mutilak* ikuskizuna eskaini dute. Eta ez zen eserleku liberrik pilotalekuan.

Ikuslegoa Beotibarren sartu

bitartean hiru aktorek une horiek alaitu egin zituzten, jendearen parte-hartzea eskatuz. Bi aktoreek ikusleek egin behar zutena esaten zuten: txaloak, olatuarena, oihiak, edota barrea. Jendeak zer egin behar zuten bazekien, neska lirainaz jantzitako hirugarren aktoreak irakurtzeko kartel bat erakusten baitzuen. Adibideak aritu ziren jartzen, bromak eginez karteletan jartzen zuena egiteko: jendeak ederki asko erantzun zuten, parodietan parte hartuz.



Espainiako txurrerogilea kantuan aritu zen ikuskizunaren hasieran, herenegun. N. URBIZU

Hasiera batean eszenatoki sinplea iruditu arren oso adierazgarria zen Arpegi taldekoek Beotibar pilotalekuan jarri zutena: semaforo argiduna zegoen, eta esaten ziren gauzen arabera kolore bat ala bestea pizten zen.

Horrez gain, azken urte hauetan denon ahotan egon den gai baten inguruko zeinu ezaguna ikusi ahal izan zuten ikusleek: *Ezin da erre* adierazten duena, alegia.

### Ikuslegoaren algarak

Espainiako txurrerogilea atera zen lehenik, Charpentierren *Te Deum* obraren sarrera entzun ostean. Emakumez jantzita aterara zen, saskia eskuan zuela. *Playback* eginez txurreroaren abestia kantatu zuen.

Bukatu ostean, txuriz eta beltzez jantzitako bi aktoreak Tolosako gaiei heldu egin zieten, tonu ironiko eta umoretsua erabiliz, urtero legez: Santa Maria

elizan bertsolari nagusien finala ospatzeko zela, edota polikiroldegi berrira joateko «txokolatzeko bidea» ekarri zuten gogora. Alkateaz ere aritu ziren, «ezezaguna zela» esanez, «ez baita komunikabide bakar batean ere ateratzen».

Prentsa arrosarekin loturiko esketak ere egin zituzten, eta baita dantza saioak ere. Eskainitako lanaren izenburuak zirkoa zioenez, animaliaz jantzita ere agertu ziren batzuk. Zirko haurrek ere izan ziren Beotibarren, ume bihurrien gisan jantzita, eta brometan aritu ziren. Tarzan ere agertu zen, tximu eta guzti. Tximuak ikuskizunen artean nahastu egin ziren, hau ere irribide bihurtuz eta barrearengatik.

**OSKI**  
Emeterio Arrese, 5  
Tel.: 943 65 56 21  
Nafarroa etorb, 11  
Tel.: 943 65 12 64

**in→ gremioen koordinazioa**  
argiketariak & igeltseroak  
iturkinak & pintoreak  
arotzak  
eskaiolista & dekoratzaileak  
zoruak & leihoak  
altzariak & sukaldeak  
Nafarroa etorbidea, 12  
20400 Tolosa  
Tel.: 943 65 36 40  
**Inauteriak ondo pasa!**

**AT ALDAMA TAPIA S.L.**  
ARTEKARITZA • GESTORIA • ASEGURAK  
Kaleberria, 22-behea • Andoain • Tel.: 943 59 44 76 / 943 30 01 67 / Faxa: 943 30 04 17  
atapiaandoain@sif. logicontrol.es  
Foruen etorb, 7 • Tolosa • Tel.: 943 65 03 75 / 943 65 03 92 / Faxa: 943 65 52 06  
gestoriaaldama@sif. logicontrol.es

**AITZOL UDAL EUSKALTEGIA**  
?., txantxe, txantxi, ?. , txantxu  
**Zer behar du Inauteriak?**  
TOLOSako UDALA EUSKARA BATZORDEA



musika alai nonahi,  
festak kaleak hartu ditzala,  
gure gorputzak ere bai.

ONDO PASA IÑAUTERIAK!



Tolosako Udala



**Sastreria Aranguren**  
Gizon eta emakume

**Ondo pasa Inauteriak!**

Korreo, 4 • Tel.: 943 670525  
Korreo, 1 • Tel.: 943 673311  
TOLOSA

**Ezenarro**  
Leiho isolagarriak

Zure leihoak gurean

Leiho isolagarriak • PVC  
Haustura aluminioa •  
Egur arotzgintza

San Frantzisko, 26 - behea  
20400 TOLOSA - Tel.: 943 11 85 36  
Faxa. 943 11 84 53

**zute**

943 67 14 27

タトゥー  
TATTOO

tatuia artistikoa  
mikropigmentazioa  
mehandi  
pierzing  
osagalak

943 11 05 47  
629 39 36 01

kale nagusia 11 TOLOSA

**LASKORAIN IKASTOLA**

**INAUTERITETAN**

Buskaraz bizi

Usabal auzoa, 26 • TOLOSA  
Tel.: 943 69 71 22  
www.laskorainikastola.net

FESTAK ONDO PASA!

**TOLARGI**

Tolosako argia. Zurea  
La luz de Tolosa. Tu luz

Pablo Gorosabel kalea, 34 B. • TOLOSA  
Tel. 943 65 00 16 • Faxa: 943 65 00 65  
Telf., matxurak: 610 44 00 88  
E-posta: tolargi@tolargi.com  
www.tolargi.com

**TOLOSAGASA**

Tolosako energia. Zurea  
Energia de Tolosa. Tu energia

Arostegieta, 18 • TOLOSA  
Tel.: 943 67 53 20 • Faxa: 943 67 55 11

"Jeiki guztiok...  
...goazen festara  
danok goizetik!"

www.kutxa.net

**kutxa**



ANDONI ITURZAETA ▶ FESTA BATZORDEKO BURUA

# «Inauteriak jendeak egiten ditu, eta hori lagundu egin behar da»

Musika, karrozak eta zezenak dira bere ustez jaien elementurik garrantzitsuenak, eta horiek hartzen dute aurrekontuaren zatirik handiena; Festa Batzordean giroa hobetu delako gustura ageri da

JOXEMI SAIZAR

Festa Batzorde buru gisa bizi-tuko ditu Inauteriak hirugarren urtez Andoni Iturzaeta zinegotzi gazteak. Intentsitate handiz bizitzen ditu urteko egun berezi hauek. Ardura horren ikuspegitik eta pertsonalki jai hauek nola bizitzen dituen azaldu dio HITZARI.

## Zein berrikuntza dakarte aurtengo Inauteriek?

Zaldunita Bezperako danborradan batukada sartzea, zezenketen ondorengo kalejiraren ibilbidea, Kaldereroen ibilbidea, sokamuturren leku aldaketa, Bonberenea txaragaren irteera —Amarozkoa ez da aterako—, egitaraua Tolosa-ko inprenta batean egitea... Sanjoanetan programatzen duzu gauza gehiago, baina Inauterietan ez da hain beharrezkoa...

## Eta 750. urtemuga ez al da ezertan nabaritutiko?

Aurrekontua izoztua dago. Nahiago dut Fundazioa sanjoanetan bustitzea Inauterietan baino.

## Hutsunerik-edo somatzen al duzu?

Ostiral Mehea eta Zaldunita Bezpera agian, baina Zaldunitatik aurrera... Ostiral Mehean ikusi beharko genuke zer egin. Ekitaldi bakarra dago, ez dago alternatibarik.

## Zein da Festa Batzordearen zeregina?

Inauteriak jendeak egiten dituen festak dira, eta horiei eman behar zaie laguntza. Gu sartu ginenean jendea oso erreta zegoen eta orain giroa hobetzea lortu dugu. Musika, karrozak eta zezenak dira ele-



HITZA

mentu garrantzitsuenak, eta horiek dute aurrekontuaren zatirik handiena.

## Eta nola laguntzen zaie?

Hiru urtetan, aurtengoa barne, %50ean igoko zaie laguntza txarangei. Karrozak eta konpartsak gordetzeko lekua jarri genuen Olarrain auzoan iaz eta arrakasta izan da. Lehiaketa ere aldatu zen, dietak jarri —horretarako diru kopurua igo da—, diru sariak kenduz, eta epaimahaian beraiek sartuz —lehen inork ez zuen parte hartu nahi izaten, bestalde—. Orain gusturago daude karroza eta konpartsetako kideak.

## Non izango dira aurreko txosnak eta barrakak?

Euskal Herria plazan lehenak eta Artxiboaren atzealdean bigarrenak, jarri genuen errota-zio sistemari jarraituz. Ideia ona izan da. Bizilagunak lasaia goelditu dira. Protesta handiak izaten ziren. Txosna guztiak karpa baten azpian sartzea ere ideia ona izan da, hots gutxiago sortzen delako eta eguraldiaz babestuago daudelako. Haiek ere gusturago gelditu dira.

## Barraketan aldaketarik ba al dago?

Iaz barrakeroek deskonfiantza handia zuten Geltokiraino joan behar zutelako, baina ondo atera zitzaizkien. Jartzen zaien tarifa pixkanaka jaisten joan da. Udala bezala ezin dugu diru asko eskatu, guk dirua ateratzera ez goazelako. Barrakarrik gabe ez dugu ulertzen, eta badakite. Zaila da esplikatzeari jendea barrakarrik ez dagoela Udalariri diru gutxi ematen diotelako. Kanon hori kendu, baina erabiltzaileek ordaintzen

Gozotegia eta okindegia

## ECEIZA

Teilak eta Zigarrikoak

Pablo Gorosabel, 84 • Tel.: 943 655161 • San Frantzisko, 8 • Tel.: 943 651916 • TOLOSA

ESTALDUREN ERABERRITZEA  
FATXADA ETA ETXEBIZITZAK  
IGELTSERITZA ORO HAR

IZASKUN BIDEA,  
7 BEHEA  
Tel.: 943 67 57 53  
606 98 11 35  
606 98 10 80  
Faxa: 943 67 02 33  
20400 TOLOSA  
(Gipuzkoa)

PAÑOLA  
ERAKUNTZAK, S.L.

'ZURE UMEEN DENDA'

sehaskak • eguzkitakoak • segurtasun aholkiak  
zakuak • maindireak • ohe estalkiak

HAURDUNENTZAKO ARROPA-HAUR MODA 0-2 URTE

ONDO PASA INAUTERIAK!

Txalo San Frantzisko, 39 • TOLOSA • Tel.-Faxa: 943 65 22 38

## ELA

Ondo pasa Inauteriak!

EUSKAL SINDIKATUA

## KIKATZA

PINTXOAK - BOKATAK  
ANOAK  
PLATER KONBINATUAK

Plaza Berria, 6 • 20400 Tolosa  
Tfnoa: 943 67 49 13





**TXARANGAK**

«Hiru urtetan, aurtengoa barne, %50ean igoko zaie laguntza txaranga ofizialei»

**TXOSNAK-BARRAKAK**

«Ideia ona izan da iaz jarritako kokalekuen errotazio sistema; bizilagunak lasaiago daude»

**TXIKIZIOAK**

«Izaten dira txikizioak, baina egoten den jende bolumena ikusita, ez da hainbestekoa; eta soluzioa zein da?»

duten prezioa jaistea planteatu beharko genuke.

**Horrelako jai handietan zerbitzu ugari behar izaten dira.** Garbiketa, trafikoa eta aparkalekuak festa batzordetik kanpo gelditzen dira. Inauteri aurretik bilerak egiten ditugu Udaltzaingoa, Agenda 21eko batzordea, DYA, Gurutze Gorria eta garbiketa zerbitzuekin hori antolatzeko. Lan handia izaten da, nahiz eta jende asko ez konturatu.

**Txikizio asko izaten direla diote batzuk.**

Egunero batzordeko bilera egiten da dena nola joan den ikusteko eta izaten dira txikizioak, baina egoten den jende kopurua ikusita, ez da hainbestekoa. Eta irtenbidea zein da? Udaltzaingoa edo Ertzaintza ateratzea? Okerrago litzateke. Etortzen den jende kopurua-erentza, mantentzen bada orain arte izan dugun inzidentzia maila, ez dago gaizki. Horrek baino gehiago kezkatzen nau bronkak izatea, jendea desfatsatuta joatea...

**Ostalaritzarekin zerbait egiten al duzue?**

Behin baino gehiagotan saiatu da Udala, baina Inauterietan ez dugu lortuko ezer egitea. Onartuta daukat. Agian, beste garai batean... Bestalde, beraien arteen ez daude antolatuta.



Andoni Iturzaeta (behean, ezkerrean, Baltasar erregeaz), koadrilarekin, Gernikako arbolako jaiotzan. HITZA

**Orijinaltasuna, grazia eta merke izatea**

Festa Batzorde buruak «a tope!» bizitzen ditu Inauteriak. Hasieran beldurtuta zegoen, jarraipen bilerak zirela eta... Goizeko bilerak «alukeria» direla dio, baina badaki aurretik, eta lehenxego joaten da etxera. Lana eta parranda uztartzea «beharrezko» ikusten du; «Inauteririk gabe ez naiz geldituko!», dio. Eguneko unerik onena arratsaldetik aurrera iruditzen zaio. Goizekoa ere bai, mozorroekin eta. Txikitatik galdutako zuzenak joateko ohitura eta orain berreskuratu egin du zinegotzi eta Festa Batzordeko buru denetik. «Zer da Inauteria?», galdetu diogu bat-batean. Ez du inoiz pentsatu. «Kristoren festa da eta oso herrikoa». Ostegun Gizenean jendeak txipa aldatzen duela uste du, eta «kristoren motibazioarekin» ikusten du. Horixe omen du bereizgarri Tolosako Inauteriak: «Jendearen implikazioa». Egitaraua ikusita, sanjoanetakoa konplotoagoa da, baina askoz hobeto funtzionatzen dute Inauteriek Iturzaetaren iritziak. Eta implikazio horren arrazoia «horrelako tolosarrismo» batean ikusten du: «Inauteriak gure bandera dira, predisposizio handia dago jendearen aldetik. Sor-tzen duten giroa erakargarria

da. Ostegun Gizenean rollo onarekin dago jendea eta horrelako leku batera joaten bazara animatu egiten zara».

Aitorpen txiki bat ere egin dio Hrtzari Festa Batzordearen buruak: txikitik eskiatzera joaten zen, baina UBIn zegoela hemen gelditu ziren amona gaixo zegoelako eta ordutik aurrera beti gelditu izan da Inauterietan. Gainera, parte zuzena hartuz: Ostegun Gizeneko korporazioan dantzari bezala ateratzen da eta larunbateko Danborradan danborrari gisa. Bi kasuetan zinegotzi izan aurretik. Eta koadrilako konpartsetan, noski.

Tolosan, txantxoz janzterakoan bakoitzak bere estiloa eta filosofia dauka. Hona hemen Iturzaetarena: «Gauza orijinala, grazia puntua duena eta, batez ere, merkea dena montatzen». Behin 30 euro gastatu omen zituzten 18 lagun artean barazkien negutegi bat egiteko. Jostunak egindako traierik ez duela aitortu digu, «osabak egindakoak baka-rrik». Filosofia hori jarraituz, duela bi urte tiro pitxoiz atera zirela aipatzen du.

Prestateta lanak ere nola egiten dituzte esan du. «Normalean berandu hasten gara. Sagardotegi bat antolatzen da

ideiak sortzeko. Hasteko hiru konpartsa desberdin prestatzen ditugu, baina Asteartita kritikoa samarra izaten da eta beti ez dugu ateratzen konpartsa. Gauean beste zerbaitez ateratzen den jendea ere bada koadrilan».

Asko izan dira azken urteotan ateratako konpartsak, baina bereziki iazkoa gustatu zitzaion. San Frantzisko ibiltokian zuhaitz batetik bestera plastikoki handi bat jarri zuten zintzilik auto baten parabrisa balitz bezala, ITV txartela eta guzti. Aurrean gidaria eta atzean Elvis Presleyren muñeko gisa besteak. Zaldunita egunean izan zen, jende asko zebilen eta zaila zen ikustea. Autobus paradarena eta fruta kaxena ere gustuko ditu. Espektatibak ez zituen bete, berriz, txirindulariena eta laguntza autoena izan zen. Errodamentuak puskatu egin ziren eta segituan utzi behar izan zuten.

Ikusle bezala orijinaltasuna baloratzen du. «Iaz ere kristoren barrea bota nuen arrainontziarekin. Gasto minimoa eta oso ideia ona. Karrozak beste edozein karnabaletan ikusten dituzu, baina horrelako taldetxoak ez». Mulañborena ere gustatu zitzaion. ◀

**TOLOSA ▶**

**Larunbateroko azokara ere iritsi dira Inauteriak**

Erosle asko eta asko ohi baino beranduago agertu zen; eskaintza oparoa izan zen

PABLO ALBERDI

Larunbateroko azokara ere iritsi dira Inauteriak. Jai giroa nabaria zen atzo non-nahi. Baita erosleen biharamona ere, asko eta asko ohi baino beranduago agertu baitziren azoka gunera. Erosle gutxiago izan bazen ere, produktu eskaintza beti bezain oparoa eta kalitatezkoa izan zen.

Zerkausiko lanak direla-eta Trianguloan salmenta postuak jarri behar izateak utzitakoaz era guztietako irizkiak dituzte saltzaileek. Batzuk leku gehiago dutela eta erosago daudela diote. Beste hainbatentzat, ordea, lekua zabalegia da eta erosleak Zerkausira ohiuta daude.

Neguko produktuak salgai daude oraindik azokan: barrazkiak, Errezil sagarrak, in-txaurrak, hurrak... Gazta ukera zabala, gozoak eta produktu ekologikoak ere aurki zitezkeen atzo. Berdura plazan, udaberriko loreen zain daude dagoeneko. Bestalde, joan den larunbatean berrikuntza izan ziren tomate eta marrubi landareak ere salgai jarri zituzten atzo.

**ATZOKO AZOKA ▶**

	merk.	gares.
<b>Berdura plaza</b>		
Azalea	3,50	10,00
Ziklamena	3,50	6,00
<b>Bertako produktuak</b>		
Hurra	3,00	4,00
Errezil sagarra	2,00	5,00
Artisau ogia	2,20	2,85
Ardi gazta	12,00	16,00
<b>Produktu ekologikoak</b>		
Arroz	1,90	2,00
Aza	2,50	3,00

**iragarki laburrak ▶**

**LANPOSTUAK**

**Garbitzaileak.** Lanpostu finkoak: Eusko Jaurilaritza, ikastetxeak, ospitaleak. Informazioa: 943 313782.  
**Haurtzaindegi publikoak.** zaintzaileak, hezitzaileak... behar

dituzte haurtzaindegi publikoak.

943 313782.

**Peoiak.** Igeltseroak, elektrizistak, iturginak, lorezainak, palistak, gidariak. Lanpostu libreak udaletan. 943 313782.  
**Gidariak.** Udaletan eta Foru

Aldundian laster lanpostuak.

Kontratu mugagabeak. 943 313782.

**Sukaldariak eta sukaldari laguntzaileak.** Postu libreak Eusko Jaurilaritza. 943 313782.  
**Suhitzaileak.** Ertzaintza, polizia.

2006ean lanpostu berriak.

Informazioa: 943 313782.

**Haur eskolak.** Haur zaintzaileak eta haur hezitzaileak behar dira. 943 313782.  
**Administrari laguntzaileak.** Hurrengo sarrerak: Beasain, Bergara,

Soraluze, Mutriku, Zizurkil, Mendaro, Anoeta. Lanaldia asteleheneetik ostiralera, 08:00etatik 15:00etara.

**Langileak.** Obratoko langileak, gidariak, zabor biltzaileak, garbitzaileak behar dira udaletan. 943 313782.



AMEZKETAKO TALAIK ETA ABALTZISKETAKO TXANTXOAK ▶

# Dantzetan sustraiak bilatuz

Aurten ere goizean goiz espero dituzte baserriarrek Talai-dantzarien eta Txantxoaren bisita, dantzaren truke jateko nahiz edateko zer edo zer eskainiz: aukeran, dirua ematea ere bada

## NEREA URBIZU

Ohituren eta tradizioaren indarra izugarria da Euskal Herrian. Are gehiago jaialdiak ospatu behar direneko garaian. Honela pasatzen da ere eskualdeko Inauterietz hitz egiten denean: Abaltzisketan eta Amezketan modu berezi bezain zelebrez igarotzen dituzte Inauteri garaiak. Josu Barriolak, Iñaki Egurenak, Ainhoa Fernandezek, Aitziber Malkorrak eta Paul Zabalak euskal filologoek gaia jorratuz lan bat osatu zuten.

Lan horren arabera, ez dira bi herri hauetan moztarrok berak garrantzi gehien duen elementua, dantza eta janaria baizik. Hauen inguruan ospatzen dituzte festa hauek. Bi herri hauek komunean dutena, besteen artean, jarduera ekonomikoa da: abeltzaintza da oinarria. Nekazaritza ez da nagusia, geografikoki bere mugak baititu —Aralar—.

Inguru hauetan dabilta talai-dantzariak nahiz txantxoak, Amezketan eta Abaltzisketan. Bereziak direla esan da, ez baitute beste inguruko herriekin loturarik Inauteriak ospatzeko garaian. Lizartzak du antzekotasunen bat duen bakarra, txantxoak ere baitabilta handik.

## Abaltzisketako txantxoak

Abaltzisketan Txantxoak aritzen dira dantzan: igandean (gaur) aritzen dira horretan, eta puska biltzea egiten dute baserrietan zehar, nahiz eta duela urte batzuk bi edo hiru egunetaz horretan aritu: baserri ia guztietatik pasatu behar ziren, eta ez zuen denbora ematen dena egun bakarrean egiteko.

Ez da argia *Txantxo* hitzaren



**Txantxoaren janzkera.** Txantxoaren arropa deigarria, bizia kolorez, eta bordatu konplexuez apaindurik eta ederturik. Hau jantzea ez omen da erraza. N. U.

etorrera eta ibilbidea, ordea: gaur egun ere erabiltzen da *txantxo* hitza, norbaitek «zelebrekeriak» egiten dituenen esateko, «Ze txantxoa haizen, hil», Iñaki Artola abaltzisketarrak HITZARI aipatu dion moduan.

Beste bertsio bat ere bada, eta *txantxo* hitza moztarrotutako horri esatearena litzateke: txantxotua dagoen pertsona moztarrotua egonen litzateke, alegia. Amezketan ere zentzu honekin erabili ohi da.

Erabiltzen dituzten jantziak oso biziak dira: kolore alaiak eta bordatu konplexuak dituzte sorbaldeetan jantzen dituzten zapiak. Txapel gorriak sare zuri batekin estaliak dira. Praktika zuriak jantzen dituzte, gainera. Trikitilariak dantzari mu-

sika gehitzen dio, eta hau artzain-gizonaz jantzen da.

Hauen aurretik artzain-gizonaz jantzitako beste bat joaten da, eta dantza eskaintzerako orduan, erratza batekin, dantzariak erabili beharreko eremua txukundu eta garbitu egiten du. Garai batean badirudi honek beste funtzio bat zuela: baserriaren ataria garbitu egiten zuen, «izpiritu eta arima gaiztoak» uxatzeko edo.

Atzetik beste gazte bat doa, artzain-gizonaz hau ere. Pertsonaia hau Moztarrotu izenez ezagutzen da, eta bere zeregina bestelakoa izaten da: baserrietan eskaintzen dutena jasotzea. Antzina lapurra zen ere: dantzatzan zuten bitartean, deskuiduan baserrian sartu eta ahal zuena lapurtzen zuen.



**Talaien arropa.** Talai dantzariak artzai gizonaz jantzen dira, abarka eta guzti. Bietan ere makil pare bat erabiltzen dituzte dantza egiteko. IMANOL GARCIA

08:00etan hasten dira igande goizean herriko hainbat baserrietan dantzatzan, beti ere, makilekin egindako Txantxo-dantza. Trikitixa lagun, gizonetako gazteek txantxo jantzi dotoreak ipinita eskaintzen dute dantza. Motza, baina berezia da berez, egurrezko makilen hotsa parean duten kideak dituenaren kontra joz.

11:00ak aldera, mokadutxo egiten dute plaza inguruan, Orendain alderako baserri dantza eskaini osten, segidan Larraitz auzo aldera egiteko.

15:00ak aldera bukatzan dute erronda eta Larraitzko jantzean bazkaldu egiten dute, jasotako diruarekin ordainduz. Esan beharra da garai batean bi, eta bestetan hiru egunez aritzen zirela dantzan; gaur

## EMAKUMEA

Hasiera batean ez zen emakumea dantza horretan aritzen. Plazara gerturatu egiten zen ikustera

## JANZKERA

Inauteri hauetako alderik nabariena arropan ikusten da: Abaltzisketan dotoreagoak dira

egun, berreskuratu zenetik, autoz joaten dira baserri batek bestera: arropa zuria ez zikintzeko —bideak lokaztuta daude— eta dena egun batean soilik egiteko, baserriak sakanatuegiak baitaude.

Gizonezko gazte hauek ez omen dute entseguen beharrik: eguna iristen denean nahi duenak parte hartzen du, eta hasi aurretik bitan edo hirutan dantzatuta osten dantza biribila eskaitzen dute baserri guztietan.

## Amezketako Talaiak

Amezketan, Abaltzisketan bezala, eskean aritzen dira, baserri zehar. Bi egunetaz zehar egiten dute ibilbidea, ordea. Igandean talde bakarra ateratzen da dantzatuta, eta astelehenean, aldir, bi talde ateratzen dira, herri guztian zehar dantza eskaini ahal izan dezaten. Gero herrian elkartu egiten dira, denok batera gosalduta eta bazkaltzeko.

Abaltzisketako Txantxoekin duten alde nabarmena jantziaren dago: funtsean berdina baita, bestela —musika, puska-bitza eta dantza—. Amezketan

## hilberria ▶



### Santiago Vicente Altxu

Altxu



Urak dakarrena urak daroa, zuk emandakoa gurekin gelditzen da

Oreretako Ezker Abertzalea

## hilberria ▶



### Xanti Vicente Altxu

Madelon



Zu sortu zinen enbor beretik sortuko dira besteak borroka hontan iraungo duten zuhaitz ardaska gazteak

Euskal Herriko Gay Askapen Mugimenduko (EHGAM) eta Gaytasunako zure ahizpek

▶ hilberriak  
▶ urteurrenak  
▶ eskertzak

**Gipuzkoan  
50.000 etxetara**

HITZA guztietan prezio beragatik

**ESKELAK**  
19:00ak arte hartzen dira  
Telf.: 943 65 56 95  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info



ez dira luxuzko arropak ikusten, artzain-gizonaz ateratzen baitira: galtza urdin ilunak, abarkak, atorra txuria, eta txapel beltza, alegia. Eskusoinua darabilte musika egiteko. Abaltzisketan ez bezala, han trikiti-xa erabiltzen baitute. Garai batean txistuarekin egiten zuten; badirudi, gainera, bi herrietan. Gaur ez da horrela egiten.

**Emakumearen papera**

Hasiera batean bi herrietan ez zen emakumea dantza horretan aritzen. Plazara nahiz baserriira hurbiltzen zirenean, dantzariengana gerturatu egiten ziren, besterik gabe.

Abaltzisketan ez dira ohiturak aldatu; izan ere, nahiz eta mutilen faltan noizbait ibili, beti konpondu izan dira, eta nola edo hala gizonetako zortziko taldea osatzea lortu izan dute. Azkeneko urte hauetan, hala ere, poltseroaren papera emakumeari utzi izan zaio.

Ez da gauza bera Amezketan gertatzen: duela 30 bat urte berreskuratu zutenetik emakumeak beti hartu ahal izan du parte, nahiz eta beti horrela ez izan, batzuetan beharrik egon ez delako. «Ustez, 83an izan zen lehenengo aldiz emakumea dantzan», Koldo Saralegi amezketarrak HITZARI adierazi dion bezala.

Txantxoan eta talaien dantza garai batean desagertzeaz egon zen. Txantxoak XIX. mendean ba omen zirela esaten dute herrian. Gerra ondoren galdu egin zen ohitura, eta berreskuratu egin zuten duela 17 urte inguru. Amezketako kasuan ere berdintsua esaten da: gerra garaian galdu egin zen, baina ondoren jarraitu egin zuten dantzatzeko. Urte batzuen buruan utzi egin zioten dantza-zerari, duela 30 urte arte.

Bi herri hauek gogor eusten diete ohiturei, eta hala jarraitzea espero dute, arbasoek egiten zituzten errituen oinarria galdu bada ere, ohitura behintzat irauteko. Gogotsu direla erakutsi dute herri hauetan azken urteotan, eta «iraungo duen errezeloa» ere badute.



Abaltzisketako Txantxoak puska biltzen hasiak. NOELIA LATABURU



Talai-dantzariak Amezketan, 1983. urtean. HITZA

**Adin ezberdinetako Talai-dantzariekin solasean**

Juanito Elizalde, Koldo Saralegi eta Txomin Goñi Amezketako talai-dantzariak dira. Hiru ere garai desberdinetan dantzatu dute, baina funtsean ez dute aldaera handirik ikusten.

Jatekoak eta edatekoak gogoratzen ditu Elizalde, eta baita hildakoren bat baserrian izanez gero errezatu egiten zutela dantza eskaini ordez. Bere garaian, soldadu joan behar zirenen kintoak dantzatzeko zuten Talai-dantza. Neskek ere erraz hurbiltzen zitzaizkien orduan. Duela 50 urte «zazpina

duro jaso genituen, eta azkenekoan 7 duro jarri behar izan genituen».

Saralegik gogora ekarri du behin edo beste bere aitona txistuarekin jo egin zuela Talai-dantza, baina ez berak ikusia. Astoa ere noizbait atera izan zuten zama haren gainean jartzeko: «noizbait ere astoa dantzarien karga bera izan bazen ere», dio, barrez, Koldok.

Goñi gazteak 5 urte daramatza dantzan, eta astelehenetan ohitura bihurtu da: Talai ek afaria egiten dute. Aurten ere, hala egingen dute. ◀



Saralegi, Goñi eta Elizalde, makila eskuan hartuta. N. URBIZU

**hilberria ▶**



**Xanti Vicente Altxu**



Beti gure artean izango zara, adiskide. Agurrik ez, gero arte baizik.

Gaztañoko lagunak

**urteurrena ▶**

**Etxahun Gorrotxategi Zuaitz**

VIII. urteurrena

Eguneroko lanean euskaldunon eskubideak lortu nahian, zurekin ditugun oroitzenpenetan indartzen gara.



Bihotzean zaitugu!!

Sendia eta lagunak

GABIRIA, 2006ko otsailaren 26a

**iragarki laburrak ▶**

**LANA**

**Tabernaria.** Anoeta, neska euskalduna behar da tabernan 4 ordu lan egiteko. Esperientzia duena. Deitu 635 745 291ra.

**SALGAI**

**Autoa.** Toledo TDI 110, 2002koa. 52.000 km. 10.900 eurotan. 628 549 145.  
**Besteak.** Setter inglesa 2 hileko zakurkumeak salgai, eta Rangge Rover TDI salgai 64409584.

